



Usurbilgo Udala



ID. 06/2017-0170

DEKRETUA

XABIER ARREGI IPARRAGIRRE Usurbilgo Udaleko alkateak, Toki-Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.1 atalean xedatutakoaren arabera,

IKUSIRIK

2017ko apirilaren 27an lorazain ofizial plazaren deialdia egin eta oposizio-lehiaketaren oinarriak onartu zituen. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2017ko maiatzaren 10ean oinarriak argitaratu ziren eta ondoren Estatuko aldizkarian honen berri eman eta izena emateko epea ireki zen. 2017ko urriaren 5ean behin betiko zerrendak onartu, epaimahaia izendatu eta lehenengo frogaren eguna zehaztu zen. 2017ko amaiera eta 2018an zehar oinarrietan zehaztutako frogak egin dira eta ondoren merituak baloratu.

Prosezua aurrera eraman duen epaimahaik behin betiko emaitzak argitaratu ondoren, Alkatezari "lorazain ofiziala" lanpostuko plazarako pertsona hau izendatzea proposatu dio:

- Jose Ramon Mendiluce Eceiza

Proposatutako izangaiak ezarritako epean 10. oinarrian eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko du eta egokia da, eta mediku azterketa ere gainditu du.

Deialdiko 11. oinarrien arabera, proposatutako izangaiak praktiketako funtzionaria izendatuko da, aurretik esandako agiriak aurkeztu eta gero. Izendatutako izangaia izendapena jakinarazten zaionetik hurrengo 20 balioduneko epean hasiko da lanean. Praktikaldiak hamabi hilabeteko iraupena izango du eta nahitaezkoa eta kanporatzailea izango da.

Halaber, puntuazioaren hurrenkera kontutan hartuz lan-poltsa osatuko da.

Beraz, Epaimahaiaren proposamena kontutan harturik, zera:

ERABAKI DUT

LEHENENGO: Lorazain ofizial plazarako praktikaldiko funtzionario bezala, lortutako puntuazioaren arabera, Jose Ramon Mediluce Eceiza izendatzea.

BIGARRENKO: Aipatutakoak lorazain ofizial plaza, Administrazio bereziko Eskala, Zerbitzu Berezien Azpieskala, C2 sailkapen taldera adskribatzen da praktikaldiko izaerarekin hamabi hilabetez.

HIRUGARRENKO: Praktikaldia nahitaezkoa eta kanporatzailea izango da.



Usurbilgo Udala

LAUGARRENGO: Izendatutako izangaiak izendapena jakinerazten zaionetik hurrengo 20 balioduneko epean hasiko da lanean.

BOSGARRENGO: Erabaki honen berri interesdun guztiei ematea, baita plaza huts hori betetzen ari denari ere. Halaber, praktiketako funtzionarioaren izendapena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udal web orrian argitaratzea.

SEIGARRENGO: Deialdiko lehenengo oinarriak jasotzen duen moduan, froga guztiak gainditu eta izendatuak izan ez diren izangai hauek honako hurrenkeraren arabera lan poltsa osatuko dute.

IZANGAIA	OPOSAKETA			MERITU AK	GUZTIRA
	1.GO FROGA	2.GO FROGA	3.GO FROGA		
1.- AMETZA LARRAÑAGA AMUCHASTEGI	8,19	7,49	15,25	10,00	40,93
2.- ARKAITZ TOLOSA LOPEZ	6,56	7,91	17,50	7,95	39,92
3.- GORKA RIKONDO SANEZ	6,88	7,31	12,75	8,80	35,74
4.- RAFA PEREZ BERISTAN	7,00	8,26	11,00	5,00	31,26
5.- MARKEL FONTAN PORTU	6,31	6,61	12,50	0,85	26,27

ERREKURTSOAK

- Erabaki honen aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertzeko errekurtsua aurkez dezake urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera Alkatezaren aurrean. Eskatzaileak hilabeteko epea dauka horretarako: erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrerako hilabete osoa.

- Bestela, erabaki hau berraztertzeko eskatu orde, edo berraztertzeko errekurtsuaren erantzunaren aurka joko balu, zuzen zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake. Interesatuak bi hilabeteko epea dauka horretarako, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Errekurtsua aurkeztekotan Gipuzkoako Kontentzioso-Administratiboetarako Epaitegira jo behar da. Bestaldetik, birjarpen errekurtsua erantzun gabe utziko balu Administrazioak, interesdunak edozein momentutan aurkeztu ahal izango administrazioarekiko auzi-errekurtsua, berriazko araudiaren arabera presuntziosko ekintza gertatu den biharamunetik aurrera.

Agindu eta izenpetzen duena Alkate Jaunak, eta nik, Idazkari naizen honek, ziurtatua.

ALKATEAK,

2018 EKA. 22



Nire aurrean
IDAZKARIAK,